

DADkutzabank “Kontxako Badia 2019” igerian zeharkatzea



Kutxa arteko ACRECA mailan txapelketa antolatzeko aurrezki-kutxetako enplegatuen bost elkarteren parte hartzea behar da. Txapelketa honekiko hiru agertu ziren interesaturik: Caja Murcia Klub Soziala, Bizkaiko DAD-Kutzabank eta Gipuzkoako DAD-Kutzabank. Horregatik, probaren izena **DAD “Kontxako Badia 2019” igerian zeharkatzea** izan da, eta Kontxako Badiaren 76. Zeharkaldia (2019) baliatu da lehiatzeko.



Guztira, hamar igerilarik parte hartu dute lehiaketa honetan. Ondorengo argazkian agertzen dira. Izenak eta denborak hauek dira:

Gerardo Cangas Ezkerra	(44:59) DAD-Kutzabank Bizkaia	
José Manuel Guillén García	(40:45) Caja Murcia Klub Soziala	
Txema Calvo del Pozo	(54:55) DAD-Kutzabank Gipuzkoa	
Guillermo Martínez Morales	(34:09) Caja Murcia Klub Soziala	*** DAD gizonezko txapelduna
Sergio Martínez Morales	(34:32) Caja Murcia Klub Soziala	
Ainhoa Arruabarrena Elorza	(56:25) DAD-Kutzabank Gipuzkoa	
Aszen Lakarra Otaegi	(54:51) DAD-Kutzabank Gipuzkoa	*** DAD emakumezko txapelduna beteranoak
Amaia Mendikute Aranguren	(41:19) DAD-Kutzabank Gipuzkoa	*** DAD emakumezko txapelduna
Juanmari Castro Sánchez	(40:37) DAD-Kutzabank Gipuzkoa	
Jon Oyarbide Orbe	(44:09) DAD-Kutzabank Bizkaia	

Txapelketa Kontxako badian izan zen irailaren 7an, larunbatean, 2.220m-ko distantziarekin, eta aurten munduko txoko guztietatik etorritako 511 igerilari bildu ziren parte hartzera.

Datu bitxia: 65 urtez gorakoen artean erabateko txapelduna... Lindy Lawrence, Toowoombakoa, 36:03ko denbora eginda!!! Googlerekin uzten zaituztet hiri hau aurkitzeko. Eta, mesedez, ez alderatu bere denbora gurearekin.

Behin batean ...

21:00 ostirala, irailak 6. Murtziako gonbidatuak.

Maria Cristinaren ateetan (hoteltxotik kanpo, alegia) gonbidatuen zain gaude Hiru dorretzar datoz, beso eta hanka luzekoak, oso luzeak; ongi legokieke “Iparraldeko morroskoak” titulua... baina hauek Murtziatik datoz.

“Garbi dago, gureak egin du! A zer mutil puskak!” izan da guztioi lehenengo burura etorri zaiguna. Bat-batean asmatu beharko taktika-aldaketa. Hiriaren aurkezpena laburtu, eta zuzenean horiek mozkortzera.

Pintxo bila Alde Zaharrera! Josema Goenaga, Amaia González eta Juan Carlos Errandonea arduratuko dira eginkizun edo misio arriskutsu horretaz.



11:00 larunbata, irailak 7. Guztiak berdin jarraitzen du.

Bezperako taktikak ez zuen ezertarako balio izan. Larunbat goizean are garaiagoak eta indartsuagoak ziruditen.



11:45 larunbata, irailak 7. Proba.



Goooooooo!!!

Zeharkaldi hau faseka doa:

* Lehenengo 300m-ak. Ostikoen eta haginkaden zatia. Kontrolik gabeko irteera, Kaosaren Teoria aplikatzen baita.

* Hurrengo 1.500m-ak. Betikotzen den tarte. Besakadak eta besakadak, baina mugituko ez bazina bezala. Igerian zabilta Hemendik Betierekotasunerantz.

* Azkeneko 420m-ak. Aleluien gunean sartzen zara. Eraikin zuri zirriborrotu bat begizatzen ote duzun edo...

Nautikoa da. Helmuga sentitzen duzu. Laster utziko diozu igeri egiteari. Zeure buruan 'Aleluia! Aleluia!' deidarrak entzuten dituzu.

12:00 larunbata, irailak 7. Maiteminduen ordua.

Juanmari Castro helmugara iristen denerako, Murtziako Martínez Morales anaiak lehortuta daude. Garaileak dira. Sei minutu eta erdi atera diote.

Murtziako hirugarren igerilaria, José Manuel Guillén, laugarren sartu da Juanmariren ondo-ondotik, eta hogeita hamasei segundo geroago, gure lehen igerilari emakumezkoa sailkatu da: Amaia Mendikute.

Hiru minutu geroago Jon Oyarbide eta bat geroago Gerardo Cangas, denbora emanez Bizkaiko sekzioari.

Bederatzi minutu geroago Aszen Lakarra sartu da, lehen emakume igerilari beteranoa, Txema Calvorekin batera. Minutu bat baino gutxiagora Ainhoa Arruabarrena, bere lehenengo zeharkaldia amaitu duena.



Guztiok batera. Inork ez du ezbeharrik izan! Hasieran aipaturiko hamar igerilariak eta gure lankide eta lagun igerilariak ere (Laura Ciriza, Marta Jauregi eta Maripi del Cid-ek) gainditu dute proba. Bertan da Manu Oiartzabal ere, beti zain egoten dena guk noiz bukatuko igeriketa. Besarkadak eta musuak ugari. Guztiok euforiko, tori endorfinak!

Probako lorpenik handiena ez da Caja Murciako gizonezkoen garaipen aurreikusgarria, baizik eta ikustea gure gonbidatuek ez diotela begirik kentzen hori lortu duten eszenatokiari. Gu bezalakoak dira, itsasoaz MAITEMINDUAK.

Emakume igerilariaren saria eta emakume igerilari beteteranoaren trofeoa Gipuzkoan geratu dira.

14:00 larunbata, irailak 7. Izugarri ona!

Horrelakoxea iruditzen zaizu irabazi duzun bazkaria. Oquendo jatetxean bazkaria, DAD Kutxako lehendakaria den Unai Ocañak txapeldunei sariak emateko antolatua, zinema-artistaz inguratuta (tira, argazkitan).



17:00 larunbata, irailak 7. Oooooi ... Zein polita!

Bisita gidatua Urgull gaztelura... digestioa egiten laguntzeko. Zehatz esanda, jaten jarraitzen dugu batean eta bestean.



Badiaren ikuspegiak, ordu batzuk lehentxeago igerian zeharkatu ditugunak; uhartea itsasoarekin harri zabal edo lastretan eguzkia islatzen dela; Zurriolako hondartza, Paseo Berriko zeharkaldia gogorazten diguna. Ikusten ohitua dagoen donostiarrari edertasun hutsa iruditzen bazaio, lehen aldiz ikusten duena, zeharo liluratzen du. Iker Castroren 700 argazki baino gehiago dira Donostiaren zati txiki batek eman dezakeen guztiaren lekukotasunik onena.



Dantzak eta soldaduak Mosketoiekin kapitulazioa sinatzen gazteluan, kaitik buelta koruak ontzietan abesten direla, Portu kalearen ikuspegia Kanpandegi kaletik hartua, deposituak betetzea La Mejillonera-n eta etapa-bukaera Bretxan, taloa txorizo eta gaztarekin jateko sagardoaren laguntzaz ... **Caja Murciako Klub Sozialak agindu digu ahalak eta zazpi egingo dituela beraien itsasoan igeri egin dezagun!**
LORTU DUGU ERRONKA!

21:00 larunbata, irailak 7. **Ai ene, hau tristura!**

Kosta egiten zaigu agur esatea Murtziako lagunei, eta batek baino gehiagok proposatu du beraiekin joatea. Hainbat orduz bete-betea partekatu dugu beraiekin zaletasun berbera, eta hori igarri egiten da. Elkar ikusi arte... Mazarrónen izango ote da?

Juanmari Castro Sánchez
DADKutxabank Igeriketa Ataleko arduraduna